



Errauste planten kontrako manifestaziora deitu dute herri plataformek gaurko

DONOSTIAN ▶ 18:00etan abiatuko da mobilizazioa Bulebarretik; deia egin dute AuB, Aralar eta EHNEk

LEKUA ▶ Etzi egingo duten bilerara Villabonako aukera eramango du San Markos mankomunitateak ▶ 2

AIZTONDO ▶

Saiakera idazteko diru laguntzak emango ditu Larramendik

Proiektuak aurkeztu behar dira hilaren 30a baino lehen ▶ 3

Perez izan da azkarren Alegiako helmugan

ALEGIA ▶ Bizkaitarrak Ruiz de Larrinaga eta Agirre atzean utzi zituen esprintean ▶ 4



OLAIJA ESKITXABEL

IBARRA ▶

Aparkaleku berria jarri dute herrian

Beheko-bideko zelaia egokitu du Udalak ▶ 6

GAUR
TRIKITILARIAK
DJ EUSKOS
18:00etatik aurrera
PUB
MASKOR
(TOLOSA)

Km 0 hemen dago



VOLVO S40 1.9 Diesel
Km 0 eta enpresa = 115 CV
19.800 € (3.295.000 PZTA)
PREZIOA **23.820 €** (3.960.000 PZTA)



VOLVO V40 1.9 Diesel
Km 0 eta enpresa = 115 CV
20.975 € (3.490.000 PZTA)
PREZIOA **25.195 €** (4.190.000 PZTA)



LR DEFENDER 90 TD5
Enpresan erabilia = 122 CV
23.500 € (3.910.000 PZTA)
PREZIOA **29.940 €** (4.980.000 PZTA)



VOLVO S60 2.4 Diesel
Km 0 eta enpresa = 130 CV
26.900 € (4.475.000 PZTA)
PREZIOA **30.100 €** (5.010.000 PZTA)

FINANTZIAKETA BEREZIA 120 HILABETERA • 5 urteko bermea

Eusko Jest

Donostia-Hernani errep. • Tel. 943 33 18 16 • HERNANI (Galarreta pilotalekuaren eta Opel Auto Hernaniren ondoan)
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era, Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara • 04/08/07 arte balio duen eskaintza

VILLABONA ▶ ERRAUSTE PLANTAK

Erraustegien aurkako manifestazioa egingo dute gaur Donostian

San Markos mankomunitateak herenegun egindako bileran Villabonaren alde egin zuen, «leku egokiena horixe delako»

IRATXE ETXEBESTE

Errauste planten aurkako manifestazioa egingo dute gaur 18:00etan Donostiako Bulebarrean hasita, eta AuB eta Aralar alderdi politikoek eta EHNE sindikatuak bat egin dute Erraustegien aurkako Herri Plataformek deitutako deialdiarekin. Gipuzkoako EHNeren esanetan, Foru Aldundia «sasietaidak» ari da planteatzen, arazoa «ez delako non jarriko den erraustegia». Ildo horretatik, uste du EHNEk astelehenean Foru Aldundiak hartu behar duen erabaki bakarra ezin dela izan «zer herri izango den zigortua», baizik eta nola tratatuko ditugun hondakinak.

Hain zuzen, Gipuzkoako bigarren errauste planta jartzeko bederatzik kokaguneren artean bat aukeratu behar zuela eta bilera egin zuen herenegun San Markos mankomunitateak eta Foru Aldundiak proposatutako leku horietatik —Beasain, Bergara, Donostia, Urnieta, Usurbil, Ormaiztegi, Villabona, Zestoa eta Zubietia— Villabonako «egokiena» dela erabaki zuen. Proposamen hori astelehenean, behin betiko kokagunea erabakitzeko egingo den Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren Jarraipen Batzordeko bile-

rara eramango du, eta horren alde bozkatuko du. Bileran, hala ere, desadostasun handiak izan ziren alderdien artean, ez zirelako ados jartzen kokagunea hautatzeko. PSE-EEK Villabonako Amasamendiren alde egin zuen, EAJK Urnieta-aren alde eta EAK Donostiako Aritzeta hautatu zuen. Bozketa egin, eta boto ponderatua izaki, PSE-EEren aukerak irabazi zuen. Hortaz, San Markosek Villabonako kokagunea babes-tuko du astelehenean.

AuBk eta ezker abertzaleko herri plataformek Gipuzkoako Foru Aldundiak eta mankomunitateek zaborra kudeatzeko irtenbide bakarra errausketa dela sinetsarazi nahi dutela salatu dute, bestalde. AuBko ordezkari Inazio Agirrerren hitzetan, errauste planta eraikitze iritzi publikoa «manipulatzen» ari dira, «baieztapen faltsuak eginez eta herritarrei informazioa ezkatutuz». Izan ere, «erraustearen alternatibarik ez dagoela esaten ari dira behin eta berriro, eta baita ere erraustegiek arriskurik ez dutela». Bartzelonan eta Kanadako Eskozia berrian, adibidez, errausketarik jasotzen ez duten planak garatzen ari direla eta Gipuzkoako 500 sendagilek erraustegiek gizakion osasunean ondorio larriak sor-

VILLABONA

Villabona aukeratu du San Markosek, eta proposamen hori eramango du asteleheneko bilerara

tzen dituztela baieztatu dutela ekarri du Agirrek gogora; horregatik dio errauste planten atzean «interes ekonomiko eta politiko handiak» daudela.

Gipuzkoako EHNEk ere gaur berri irizten dio, eta gardentasun eza egotzen die erakunde politikoiei. «Eztabaida publikoari uko egin diote, osasun arlotik egindako kritikei mesprezu handiz erantzun diete eta herrietatik antolatutako ekimenak ez dituzte aintzat hartu». Erakundeek arazoari erantzun «orekatuagoa eta jasangarriagoa» eman behar diotela eta ausardiak, alternatiba desberdinak aztertu eta urte askotako proiektua landu behar dutela esan du nekazarien sindikatuak: «Instituzio publikoek inposaketaren aldeko apustua egiten duten bitartean kalte-tuok mobilizazioetara joko dugu. Eromen hau geldiarazteko beharrezkoa da kalean egotea; gure protesta gizartetzeara». Gaurko deia egin du honela.

TOLOSA ▶

Laredoko Loreen Gudara txangoa Harizpek

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak Laredora (Kantabria) irteera antolatu du abuztuaren 27rako. Laredora iritsi aurretik Saltacaballo bisitatuko dute. Laredon bertan, azokara joango dira, eta kalez kale ibiliko dira Urdiña Txiki txarangarekin. Bazkal ostean Loreen Gudara joango dira. Txangora joateko izen-ematea zabalik da elkarteetan. Bazkideek 27 euro ordaindu behar dituzte, eta besteek 30; bazkide agiri eguneratua aurkeztea ezinbestekoa da.

TOLOSA ▶

Tolosako Paleta Txapelketan lehen fasea amaituta

Atzo amaitu zen Tolosaren Paleta Txapelketako lehen fasea. Erredakzio hau ixterakoan jokatzeko ari ziren azken partidak, eta sailkapena zehazteko dago. Hauek dira asteazkeneko emaitzak: Orbeagozo-Goñi25/Lakunza-Agote 30; Lontxo-Nazabal 30/ Iñaki-Txapartegi 26; Otermin-Goitia 30/Garmendia-Urretabizkaia 11. Ostegunekoak: Bengoa-Goikoetxea 30/Iñaki-Txapartegi 18; Zabaleta-Urdanpilleta 30/Yugeros-Al-dazabal 18; Lontxo-Nazabal 30/Bengoa-Goikoetxea 19.

TOLOSA ▶



Onintza Lasa, Jokin Bildarratz, Jean Haritschelhar eta Mikel Gorrotxategi, hitzarmena sinatzen, atzo, Donostian. HITZA

Euskaltzaindiak eta Udalak hitzarmena

Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu zuten, atzo, *Tolosako leku izenak* lana sistematizatzeko eta maketatze-ko. Hain zuzen ere, *Tolosako leku izenak* toponimiari buruzko lana argitaratu nahi du Tolosako Udalak, eta atzo sinatutako akordioaren bitartez, sistematizazioa, normalizazioa, azalpen testuen lanketa, material grafikoaren hautaketa eta maketazio lanak Euskaltzaindiaren ardurapean geratu dira.

Iñaki Uria ASKATU!

DEIALDI NAZIONALA

Uztailaren 20an, 20:00etan,
kontzentrazioa Zarauzko Udaletxearen aurrean
(Lege Zaharren plaza)

BIDEGABEKERIAREKIN AMAITU BEHAR DUGU

Iñaki Uria Askatu Taldea

AIZTONDO ▶ GIZARTEA

Saiakera idazteko laguntzak emango ditu Larramendik

Uztailaren 30ean amaituko da proiektuak aurkezteko epea; historia, gizarte, kultura edo hizkuntza ikertzeko izango da

GARAZI AZKUE

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, hirugarren urtez, euskaraz saiakerak idazteko dirulaguntza deialdia egin du. «Beterri-Aiztondo eskualdeko, eta oro har, Gipuzkoa eta Euskal Herriko historia, gizarte, kultura edo hizkuntza gaietan jakingarri gerta litezkeen gaiak ikertu eta ezagutzera emateko saiakerak» diruz lagunduko ditu bazkunak.

Aurtengo deialdian, iker litezkeen gaiak bi ataletan banatu dituzte: batetik, hiru gai zehatzen inguruko lanak aurkeztu daitezke. Lehenengoan, Andoingo La Algodonera Guipuzcoana lantegiko emakumeak: haien bizimodua eta lanbidea ikertu dezakete aurkezten direnek.

Bigarrenean, Amasa-Villabona: burdinola eta errotetik industrializazioa gaia jorrazteko aukera dago. Eta hirugarrenean, Teodoro Hernandorena: abertzaletasun eta euskaltzaletasun baten biografia egiteko aukera dute ikertzaileek.

Baina hiru gai horietaz gain, norberak gaia aukeratzeko parada du. Gaia epaimahaiari aurkeztu beharko dio, beti ere, historia, gizarte, kultura edota hizkuntza alorreko gaiak izan beharko dute, «zabalkunde eta irakurtzaletasun irizpideei erantzuko diena».

Larramendi Bazkunak 3.000 euro emango ditu. Diru laguntza deialdia erabakiko duen epaimahaiak aurtengo irailaren 30a baino lehen hartuko du bere erabakia, eta, saiakera

lan aurkezteko 2005eko ekainaren 30a bitarte izango du epea hautatutako idazleak.

Luzerari dagokionez, gutxienez 100 orriko lana egin beharko da.

Saiogile edota ikerlariak dirulaguntza eskaria egiterakoan, zein gai aztertu eta azaldu nahi duen agertu beharko du, eta, gaiari buruzko laburpena, helburuak, atalak edota iturriak azaldu beharko ditu, besteak beste. Datu hauek guztiak, eskaera orriarekin eta eskaertzailearen curriculum vitaearekin batera agertu beharko dira uztailaren 30a baino lehen.

Informazio gehiagorako, edota oinarriak jasotzeko, beterrri@topagunea.com helbidera idatzi beharko da, edo, 943 30 07 33 zenbakira deitu.



Etxeberriari omenaldia

VILLABONA ▶ Plaza bete jende bildu zen atzo Lander Etxeberria billabonatar preso ohiari omenaldia egiteko. Taula gainean, senideak eta lagunak egon ziren. Ekitaldia bukatu ostean, manifestazioa egin zuten eta afariarekin bukatu zuten ongiatorria. Argazkian, Etxeberria eta senitarsteok Oihane Errazkin hil berriaren argazkiarekin. G. AZKUE

ADUNA ▶ KIROLA

I. Trans-Ernio Esku Pilota Txapelketako lehen partidak jokatu dira asteburuan

Igandean izango da hurrengo saioa, 10:00etan hasita Adunan

G. AZKUE

Pasa den larunbatean eta igandean izan ziren Adunako I. Trans-Ernio Esku Pilota Txapelketako lehen saioko partidak.

Joan den asteburuan hasi

eta abuztuaren 7a bitarte izango dira norgehiagokak. Lehen partidetan, benjaminen mailan, Mujika eta Ezeizak 10 eta 16 irabazi zuten Ansa eta Garinaren aurka. Bigarren partidetan, Zelaia eta Labakak 16 eta 1 egin zuten Artolaren eta Ota-

mendiren aurka. Alebinetan, Otaegi eta Galarraga aritu ziren Etxeberria eta Kalegainen aurka, 16 eta 1 egin zuten hauek ere. Goitiak eta Galluradek 16 eta 14 irabazi zuten Ariztimuño eta Gurrutzagaren kontra.

Infantiletan, Gaztañaga eta Aizpuru gailendu ziren 18 eta 4 Pagola eta Fernandezek aurka. Eta, Ormaetxeak eta Azkuek 18 eta 5 irabazi zuten Mattin eta Maldabiren kontra.

Azkenik, kadeteetan, Zaballak eta Sagasestak 10 eta 22 egin zuten Irazusta eta Mujikarekin. Azken partidetan, Barrerosak eta Garmendiak 22 eta Alberrok eta Sarasolak 18 egin zuten.

Hurrengo partidak igandean izango dira, 10:00etan hasita. Benjamin mailan, Altuna eta Aburuza (Aduna), Ansa eta Ga-

rinen (Urnieta) aurka ariko dira.

Infantiletan, Olazabal eta Otaegi (Aduna), Gaztañaga eta Aizpuruarekin (Andoain) arituko dira norgehiagokan. Mendikuetak eta Artolak (Amezketan) Ormaetxea eta Azkuerekin (Alkiza) jokatu dute.

Azkenik, kadeteetan, Loidik eta Jauregik (Alkiza), Irazustaren eta Mujikaren (Berastegi) aurka egingo dute. Telletxeak eta Galarragak (Bidegoian), berriz, Barrerosen eta Garmendiaren kontra jokatu dute partida.

iragarki laburrak ▶

Haurtzaindegia, eta Hezkuntza Bereziko laguntzaileak. Eskola eta zentro publikoetarako lanpostuak. Presta zaitez. Informazioa dohain. 943 650193.
Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Plazak libreak udaltxe, Aldundia eta Eusko Jaurilaritzarako. Informazioa dohain 943 650193.
Suhiltzaileak. Sarrera berriak tokiko, eskualdeetako parkeetara.

Soldada, gubi gorabehera: 1.500 euro. Informazioa dohain. 943 650193.
Administrariak. Laguntzaileak nahiz teknikariak. Udaletxeetan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Deialdiak maiz eta baldintza Eskola Graduatuak. Informazioa dohain 943 650193.
Ingurumena. Langile, teknikari eta agenteak udaltxe, Foru Aldundi eta Eusko Jaurilaritzan lanpostu libreak.

Informazioa dohain. 943650193..
Basozaina. 17 postu libre eskaintza lanpostuan egin ezazu lan. Naturan lan egiteko lanpostua. Informazioa dohain. 943 650193.
Gizarte laguntzaileak. Hurrengo deialdiak Gipuzkoako udaltxe ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa dohain. 943 650193.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak. Foru Aldundi eta Eusko Jaurilaritzan lanpostu libreak. 943 650193.

publizitatea:
publi@iragarri.net
☎ 943 30 40 30

Euskaldunok behar dugun **berria**

'XAKA'-REN OROIMENEZKO PROBA ▶

Ruben Perezek esprintean lortu zuen garaipena atzokoan

Bizkaitarrak Ruiz de Larrinaga eta Josu Agirre utzi zituen atzean esprintean



Probako lehenengo hiruk ezetik mendian hoberen ibili zen txirrindulariari ere eman zioten saria. O.ESKITSABEL

IÑIGO ASENSIO

Ruben Perez (Olarra taldea) izan zen azkarrena; atzo goizean jokatu zen Alegiako XLVII. Txirrindularitza proba erabaki zuen esprintean. Zaldibarko bizkaitarra, zazpi gizonek osatutako ihesaldiko kideei aurreratu zen Larraitz auzoko helmugan. Talde hau, Perez berak, Ruiz de Larrinaga, Uberoaga, Otxotorena, Arrieta, Alan Perez eta Josu Agirrek osatzen zuten.

Bigarren eta hirugarren postua, Ruiz de Larrinaga eta Agirrerentzat izan zen hurrenez hurren. Mendiko saria Jon Arrietak irabazi zuen.

09:00etan abiatu ziren Alegiako plazatik. Xaka-ren oroimenezko XXVI. edizioan izena

eman zuten 133 txirrindulariak.

Aurretik, 130 kilometro eta hiru mendate: Larraitz igo zuten Zaldibiatik eta Orendain igo zuten bitan.

Erasoak nagusi

Txirrindulariak erasorako go-goiz irten ziren, eta horrela, hamabigarren kilometrorako lehen ihesa antolatu zen.

Ordiziara bi joan-etorri burutu zituzten, hirugarrenean Zaldibiatik Larraitzeko mendatea igotzeko. Ondoren, berriz ere Ordiziara joan eta itzultzerakoan Orendaingo mendatea igo zuten bitan bigarren igo eraren ostean Alegiara itzuli eta bertan helmugarazteko.



Talde nagusia maldan gora. HITZA

DATUAK ▶

SAILKAPEN OROKORRA

1. Ruben Perez (Olarra)
2. Jabier Ruiz de Larrinaga (Olarra)
3. Josu Agirre (Serbitzu)

MENDIA

1. Jon Arrieta (Caja Rural)

TALDEKA

1. Olarra taldea

Etengabeko ihesaldiek go-gortu zituzten lehen kilometro lauak, eta mendateak iristen hasi ziren heinean, tropeleko indartsuenak lehenengo postuetara hurbildu ziren.

Cafes Baque taldeko txirrindulariek lan ikaragarria egin zuten lehenengo kilometroetarako ihesaldiak kontrolatzeko, baina gerora, lan horrek ez zuen saririk izan. Taldeka, Olarra eraman zuen saria.

Lasterketa, epaile autotik ikusita

Josu Agirre tolosarrak izugarritzko lasterketa egin zuen arren, ez zuen proba irabazterik izan



Josu Agirre Larraitzeko mendatean gora. I.ASENSIO

I.ASENSIO

Txirrindularitza gauzak ez dira beti batek ikusitakoaren islada. Ehunka faktorek izan dezakete eragina lasterketa baten emaitzan, eta atzo ere hori ikusteko aukera izan genuen. Gipuzkoako Federakuntzako autotik, lasterketaren barrenak aztertzei aukera izan zuen HITZAK.

Josu Agirre tolosarrak izugarritzko lasterketa egin zuen Alegian, baina ziurrenik, tolosarrari oldarrak, garaipen goseak, etxean sentitzeak agian, egin zioten kalte handien. Berak ondo zekien txirrindularitza, edozein ihesaldik aurrera egin eta bertan ez egoteak aukerarik gabe utz zaitzakeela. Larraitzen gora aldendu zen ihesaldi bat harrapatu nahian esfortzu handia egin zuen bakarka Agirrek.

Bere taldekideen laguntzaz, taldea harrapatu zuen eta orduz geroztik tolosarrak ez zuen lasterketa burua momentu ba-

kar batean utzi, eraso egiteko aukera izan zuen bakoitzean, bi aldiz pentsatu gabe egin zuelarik.

Baliteke egindako kontrol lan horrek helmugaratze esprinera bere indarrak bermatu izana, baina tolosarrari ezin zaio egindako saiakuntza ukatu. Maila honetako txirrindularitza ez da nahikoa indartsuena izatearekin eta atzo agerian geratu zen hori. Alegiako proba ez da edonolokoa, berrogeita zazpi urteko historia duen proba batek, zapore berezia du beti eta garaipena garestia da bertan.

Languarre bikain

Languarre Elkarteak txirrindularitzarekin duen konpromisoa berretsi zuen atzokoan; lasterketa antolakuntza zuzena izan zen arlo guztietan.

Proban parte hartu zuten txirrindularien mailaren pare egoten dakitela erakutsi zuten beste urte batez. ◀

ARAMBURU
Salgai (Irura). Duplex-a salgai Etxezarreta kalean.
Alokatzeko (Salou). Bi logela dituen apartamentua, 6 lagunen-tzat. Igerilekuarekin. Hondartza gertu.
Alokatzeko La Pineda (Salou). Apartamentua alokatzen da. Hondartza gertu.
Alokatzeko (Tolosa). Denda bezala egokitua dagoen lokala alokatzen da Laskorain kalean.
Alokatzeko (Tolosa). 145m²-ko bulegoa Larramendi kalean.
Alokatzeko (Irura). Garajeak Mikel Goi Aingeru enparantzan
943 65 17 13 / 677 46 09 16

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitex eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

OMENALDIA ▶

Txalo zaparrada jaso zuen Orbegozok oholtza gainean

Herriko alkateak oroigarria eman zion; Beltranek eta bere taldeak Intxaustiri 'Kontradantza' abestia eskaini zioten



Orbegozok herriko alkatearen eskutik jaso zuen oroigarria. O.ESKIXABEL



Joan Mari Beltran eta bere taldea emanaldian. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKIXABEL

Eguzkiak indartsu jotzen zuen herriko plazan; hori dela-eta itzaletan jarri zituzten Juan Orbegozo panderojole alegiarrari eskainitako omenaldirako aulkiak. Lehenengo lerroan adi-adi jarraitu zuen honek Joan Mari Beltranen eta bere taldearen emanaldia, seme-alabak ondoan zituela.

Emanaldian zehar, askotarikoa doinuak eskaini zituzten taldekideek; musika tresna asko jo zituzten, gainera: alboka, bi-bolina, eskusoinua, panderoa, txalaparta...

Kontradantza deritzon abestia German Intxausti zenari eskaini nahi izan zioten: «Intxaustiri asko gustatzen zitzaizkion minuetoak eta bere oroimenez doa honako abesti hau», azaldu zuen Beltranek.

Emanaldiaren erdian, lurrean utzi dituzte musika tresnak taldekideek; jarraian, oholtza gainera igo ziren Juan Orbegozo panderojolea eta herriko alkatea, Olatz Amundarain. Orbegozoren bizitzari buruzko azalpen baten ondoren, oroigarri bat eman zion omenaldari «urte askoan egindako lana eskertu nahian». Txalo zaparrada eta animo ohiuekin gehitu ziren plazan zeuden herritarrek omenaldira.

ERLIJIOA ▶



Uriarterekin batera, apaiz ugari ikus zitezkeen aldrearen. O.ESKIXABEL

Eliza bedeinkatu zuten inaugurazioko mezan

Uriarte, Gipuzkoako gotzaina, eta 25 apaiz inguru izan ziren meza nagusian

O.ESKIXABEL

Sei hilabetez iraun dute San Joan Bataiatzailearen Eliza eraberritzeko lanek; atzo, Karmen Eguneako meza nagusian inauguratu zuten Eliza. Bertan, Juan Maria Ugarte, Gipuzkoako gotzainaz gain, hogeita bost apaiz inguru bildu ziren. Herritar ugari gerturatu ziren, bestalde, Elizaren itxura berria ikustera.

Mezari Uriarte gotzainak eman zion hasiera «eraberrituko mezara gerturatutako alegiarrei eskerrak» luzatu hasi zuen bere hizketaldia; ondoren, Joxi Eguzkitzak, herriko apaizak, hartu zuen hitza.

Ordenagailu baten laguntzarekin, Elizan egin diren lanen nondik norakoak azaldu zituen. Irudien laguntzaz, azken sei hilabetetan Elizan egin

diren konponketen berri luzatu ziren herritarrei.

Egindako lanak

Zoruaren eta aldarearen konponketa, ataria, Eliza aireatzeko lehioak, berogailua, pintaketa lanak... azken finean, Eliza eraberritzeko lanetarako behar izan den diru kopurua eta ordainketa moduen berri ere luzatu zuen Eguzkitzak.

Meza nagusian, bestalde, Eliza bedeinkatu eta aldarea sakratu zuten, inaugurazio guztietan egin ohi denez.

Txintxarri abesbatzako kideek urtero egiten duten bezala mezetan abestu zuten. Pedro Joxe Peñagarikano aita frantziskotarrak «euskaldunen meza egiteko erabili zuten euskal doinu herrikoietako bat, hau da, *Aintza*» abestu zuen abesbatzak.

ONDA
Ondo pasa festak!
janaridenda
San Juan, 44 • ALEGIA
Tel.: 943 65 30 40

Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE
Bainujantzi eta bere osagaien merkealdian gaude
Korreo kalea, 7 • TOLOSA • Tel.: 943 67 03 27

IBARRA LAN BERTIKALAK
MARGO LANAK - IGELTSEROTZA - UR GIDATZEA - GARBIKETAK
APAINGARRI KONPONKETA - USOEN AURKAKO SISTEMAK
Azkuve, 11 • 2.A • IBARRA
mug.: 619 877 397 - 677 667 278
Andamiorik gabeko lanak

SANHATSA DIETETIKA ZENTRUA
BELARDENDA
Errota, 5 • Tel.: 943 69 42 79
Kale Nagusia, 28 • Tel.: 943 69 40 63 • 20150 Billabona

ISKIÑA TABERNA
Goizean Salda
Gauean martxa!
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

HORTZ-KLINIKA
Manuel Renobales Iturbe doktorea
M^o Pilar Martínez Andueza doktorea
Larraitz, 15-1.esk.
Tel.: 943 65 41 12
ALEGIA

Larraitz kalea, 14
Tlf.: 943 65 55 33
ALEGIA
LARRAITZ
ILEAPAINDEGIA
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

Exkabazioak Lur mugiketak, eskaloretak eta Garryoak
M.g.: 61 377 33 30
Tel.: 943 65 27 21
Tel./Fax: 943 65 33 79
Erosketa Pol. 2-1, erbea
Zarautz 101-172

IBARRA ▶ GIZARTEA

Beheko-bideko zelaia autoak aparkatzeko egokitu du Udalak

«Edozein hormatan» kartelak jartzen direla eta neurriak hartuko ditu Udalak; taulak jarriko dituzte kartelak jartzeko



Beheko-bideko zelaian autoak aparkatzeko egokitu dute. JOXEMI SAIZAR

DANI GIBELALDE

San Ignazio auzoa hirartzeko lanak egiten ari direla eta sortu diren autoak aparkatzeko arazoak arintzeko, udal ordezkariek «Beheko-bideko zelaia erabil daitekeela aparkaleku gisara» jakinarazi dute.

Era berean, ahal dela autoarekin San Ignazio auzotik ez igarotzea ere eskatu dute. «Lanak ez oztapatzeko, ahal izanez gero San Ignazio auzotik ez pasatzeko eta bertan ez aparkatzeko eskatu nahi diegu herriarrei, eta horren ordez Beheko-bideko aparkalekua prest dutela oiroitarazi».

Bestalde, udal ordezkariek aipatu dutenez, egunetik egunera «nabarmenagoa da oso» erakunde desberdinek geroz eta idazkun eta kartel gehiago jartzen dituztela, «inolak ardurarik gabe gur e herriko hormatan. Txartelak jartzea da errazena. Baina kartelak kendu eta erabilitako lekuak garbi utzi, ez du inortok ere egiten. Idazkun eta kartel horiek jartzeko leku horien jabeek ere ez zaie baimenik eskatzen. Badakigu bai, gaia konpontzea ez dela erraza.

Kartelak jartzeko, taulak

Ziur dira («neurrigabekeria horri irtenbide ondradu eta errespetuzkoa eman behar zaiola. Errespetuzko giroan, informaziorako eremu publikoak izatea lortu behar dugu, 2002 urteko *Ibarrak merezi du* goiburua pixkanaka-pixkanaka hala izan dadin, baita 2003an, 2004ean, eta abar».

Hurrengo hilabeteetan hainbat jarduera egingo dituzte lehen aipatutakoa gauzatzeko eta egindakoa «balioetsiko dugu beharrezko ikusten ditugun hobekuntzak sartzen joa-

KARTELAK JARTZEKO TAULAK ▶

TOKIAK

Arkupeetan. Tolosatik Ibarrarako norakoan, Euskal Herria kaleko ezkerrealdeko arkupean hasieran (Arkaitz-Azpi taberna pasata).
Danon-Txokoa taberna parean. Euskal Herria kaleko 12 zenbakiaren parean.
Kutxa parean. Euskal Herria kaleko 18. zenbaki inguruan, espaloi gainean.
Kultur Etxearen aurrean. Euskal Herria kalean.
San Bartolome plazan. Bertan dauden komun publikoen parean eta haur parkean, udalebako hormaren kontra.
San Ignazio auzoan. Gaztelubideren parean, behin auzo hori hirartzeko obrak amaitu ondoren.

teko. Gonbite publikoa egin nahi diogu egiten joango egiten joango garen jarduerak hobeteko ideiarik duen orori.

«Elkarri errespetua»

Hasteko, herriko hainbat gunetan taulak jarriko dituzte. «Ondo ikusteko moduko taulak izango dira idazkunak eta iragarkiak bertan itsasteko. Taula horiek erabiltzeko arau bakarra hauxe da: guztiok elkarri zor diogun errespetua. Taula horiek ezartzen ditugunetik aurrera, ezarritako lekuetatik kanpo jartzen diren kartelak kendu egingo ditugu». Orotara, herriko zazpi tokitan ipiniko dituzte kartelak.

Amaitzeko, «berrito ere aipatu egin nahi dugu gonbitea zabalik dagoela gai horretan edo beste edozeinetan hobetzeko ideiak emateko».

IBARRA ▶ JAIK

Jaietako Koadrilen Egunerako txartelak

Hilaren 22an eta abuztuaren 5ean ipiniko dituzte salgai Sendi Ekintzan, 20:00etan




Koadrilen Eguneko bazkarirako une bat. IBARRAKO KULTUR ARTXIBOA

D. GIBELALDE

Sanbartolomeetako Koadrilen Egunean egiten den bazkarirako, zikro jaterako, txartelak uztailaren 22an eta abuztuaren 5ean. Sendi Ekintzan, 20:00etan ipiniko dituzte salgai txartelak, 21 euroren truke. Koadrilek joan den as-

tean erabaki zuten menua. «Denen artean adostuta izan zen», adierazi dute koadriletako kideek.

Egun horietan txartelak erosten ez dituztenek 30 euro ordaindu beharko dute. Era berean, erositako txartelak ezingo dira itzuli; ez da dirurik bueltatuko.



Sarraskia Zelai errekan

SARRASKIA ▶ Berastegi eta Ibarra artean milaka arrain hilda agertu ziren atzo Zelai errekan, fabrika baten azido isurketa baten ondorioz. Itxuraz, 07:30ak aldera gertatu zen aipatutako isurketa hori, eta arrainen heriotza sortu zuen. HITZA

BELAUNTZAKO UDALA

IRAGARKIA

Belauntzako Udalak Udaltzainguan HERRIKO TABERNA alokatzeko eta ustiatzeko lehiaketa atera du, deialdi publikoaren bidez. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala: 133.zenbakia, 2.004-07-14)

1.- Entitate adjudikatzailea:
a) Erakundea: Belauntzako Udala
b) Espedientea tramitatuko duen bulegoa: Idazkaritza.

Belauntzan, 2.004ko uztailaren 16an
ALKATEA
Eduarne Arbellegi Goenaga

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



LEITZA ▶ KIROLA

Plazako pilota txapelketako finalaurrekoak gaur dira

Igeriketaren Bileran parte hartzeko izena emateko epea, berriz, irekita dago

JAIONE ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 18:00etatik aurrera jokatu dira, plazako eskuz binakako txapelketako finalaurrekoak.

Ekainaren 5ean hasi eta asteburu guztietan izan dituzte partiduak, bertan parte hartu duten 15 bikoteek: hiru taldeetan banatuta, launa partidu jokatu dituzte, arerioak beti beste taldeetakoak izanik eta irabazitako partidu bakoitzeko puntu bana eskuratu.

Orain, partidu guztiak jokatu eta sanferminetako atsedena igaro ondoren, kontuak egin dituzte. Talde bakoitzetik, puntu gehien eskuratu dituen bikoteak du finalaurrekoa jokatuko txartela eta gero, guztien artean, talde buruak kenduta, noski, bigarren hobereak ere bai. Horrela, honako hauek dira gaur arratsaldeko finalaurrekoan lanean ari behar duten bikoteak, sailkapenaren arabera: Igor Aldaia eta Unai Olanok 4 puntu esku-



Kirola eginez jostatzeko aukera izanen dute haurrek. JAIONE ASTIBIA

ratu dituzte, Pakito eta Aimar Sagastibeltzak bezala, eta Joseba Lazkano eta Noe Buldainek berriz, 3. Hiru bikote hauek talde buru suertatu dira. Gero bigarren hoberen modura eta 3 punturekin ere, bikote bat baino gehiago geratu arren, partiduetan partzial hobereena izateagatik, Joseba eta Iñaki

Mariñelarena anaiek eskuratu dute txartela. Beraz, bi partidu dira jokatzeak gaur, zozketaz suertatutako bikotearen aurka ari behar ere, eta hauen artean aterako dira, finalera igaroko diren izenak, hurrengo astebukaeran jokatu den azken partidu horretako pilotarietak alegia. Hauexek

dira: P. Sagastibeltza-A. Sagastibeltza / J. Lazkano-N. Buldain, J. Mariñelarena-I. Mariñelarena / I. Aldaia-U. Olanok.

Haur Igeriketaren Bilera

Bestalde, beste kirol batean aritzeko aukera ere izanen da. Izan ere Leitzako guraso elkar-teak jakitera eman duenez, gaur zortzirako, Leitzarango Haur Igeriketaren XVII. Bilera antolatuta du igerilekuan, 16:30ean.

Adinaren arabera, bi sailetan banatuko dituzte haurrak: 10 urte arterainokoak alde batetik eta 11 eta 12 urtekoak bestetik. Guztiek ere *crowll* eran nahiz bizkarrez egin behar dute igeri, dagokien distantzian. Parte hartu nahi dutenek izena igerilekuan bertan eman behar dute, jaioturtea ere garbi adieraziz, larunbateko 12:00ak baino lehen.

Ondoren, partaide guztientzat opariak eta arratsaldeko ere banatuko dituzte.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aitzondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aitzondo zerb: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Oiarreaga J., M.J. Iraola, 10, (Tolosa). 943 67 24 38.
 Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
 villabona_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault 19, 16 V. Egoera onean. Tlf.: 618 25 49 60.

Motoa. Motoa GO Aprilia SR-50, 7.700 kilometro eginak dituen. Salgai. Oso ondo zaindua. 1.500 euro. Tlf.: 943 69 03 82.

LAN ESKAINTZA

Taberna. Astebukaeratarako neska bat behar da barrarako.
Taberna. Tolosaldeko taberna batean lan egiteko neska bat behar dugu. P.K. 171, Villabona.
Alegian. Emakume bat behar da ebeko lanak egiteko Alegian. Ordegia 10:30etik 14:30era. Tlf.: 943 65 30 34 (deitu arratsaldetan).

EROSKETAK

Bateria. Bateria erosiko nuke baldintza onetan. Telefonoak: 943 65 19 71 / 943 65 37 94.



Azoka, erosketak egin eta elkar ikusteko gune ere bada

LEITZA ▶ Badira hogeitau urte baino gehiago, ostiralero azoka egiten dela plazan, eta jada ohitura bihurtu da bertara joatea: ostiral goizekoa, herrikoentzat ez ezik, inguruko herrietako jendearentzat ere, hitzordu sailhestezina da. Bertan dagoen

produktu eskaintza zabala da oso, noski. Baina, hala ere, hortxe bertan nahiz herriko beste dendetan erosketak egin bitartean, askorentzat, aste osoan ikusi ez eta, lagunekin hitzaspertuan aritzeko aukera ezin hobea ere bada. Hurrengo ostiral arte!, J.A.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 17a, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Aiegia, Aizoa, Alzo,
Amesletta, Ansoa, Balerano, Berasteg, Edoain, Herrialde,
Ibarra, Inara, Larnau, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Orens,
Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurlaritza.
Kultura Saila

943 30 43 46

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzera

17

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. II. Langostino Moto Festa 15:00etatik aurrera: jokuak, bira, afaria...

Tolosa. Kostako Itzulia bizikletaz, ESAITek antolatuta. Triangulotik 9:00etan abiatu, Bidaniara igo, Azpeitia, Zumaia, Zarautz eta Örio pasatu eta Tolosara itzuli.

Tolosa. Saharako Festa Plaza Berrian 11:00etan: te dastatzea, Tolosako Dultzaineroak eta Biribilketa taldearen buruhandi eta erraldoiak, herri bazkaria 14:00etan, jolasak 17:00etan eta kontzertua 19:00ean.

Tolosa. Tolosaldea Tourrek antolatuta, bi ibilaldi erraz izango dira Alkiza inguruan. 09:00etan autobusa aterako da Triangulotik. Ibilaldien ondoren hamaiketako izango da dantza eta musikarekin.

Villabona. 8. Garagardo Azoka 18:00etatik 01:00etara Txerminen.

MUSIKA

Ibarra. Arima beltza, Mutuo desprecio eta DJ Tena. 23:30ean. Langostino Moto Festaren barruan.

ZINEMA

Tolosa. Ladykillers. 19:30ean eta 22:30ean Leidorren.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maddi Usabiaga Irazu
(Asteasu). Gaur 3 urte. Izeben,
osaben eta Alaiaren partetik.



ZORIONAK

Maider eta Xabier.

Zuen ezkontza egunean, ondo pasa familiarren partetik.

Irujoren jarraitzaileak

TOLOSA ▶ Atzo amaitu zen Uda Kirola 2004 Kanpainaren barnean azken bi asteetan Beotibarren izan den pilota ikastaroa



Pilota eskolako goizeko taldea Anizeto Lazkano irakaslearekin. I. ASENSIO



Pilota eskolako arratsaldeko taldea Beotibarren. JOXEMI SAIZAR

IÑIGO ASENSIO

Atzo amaitu zen azken urteetan ere egin izan den modura, 2004 Uda Kirol Kanpainaren barruan, uztailaren 5etik 16ra bitartean Anizeto Lazkanok zuzendu duen pilota ikastaroa.

43 lagunek hartu dute parte ikastaro honetan, bi taldetan banaturik. Beotibar pilotalekua izan da pilota gustuko duten hainbat eta hainbat gazte biltzeko aukeratu den pilotalekua, eta bertan talde bakoitzean ere gaztetxoak eta heldu-xeagoak banatuta egon dira. Lazkano beraren hitzetan,

«aurtengo ikastaroak izan du arrakasta handiena, bai partaide kopuruari eta baita hauek erakutsitako interesari dagokionez». Pilotaren inguruan antolatutako eskola hauetan, Tolosa eta Tolosa inguruko gaztetxoek hartzen dute parte, eta ikusitakoaren arabera garbi dago oso gustura datozela ikastarora. Eskola hauen helburua, parte-hartzaileen teknika hobetzea da neurri batean, baina benetako helburua gazteek udan ere kirola egin dezatela da, egun hauetan urte osoko ikasketak alde batera utzi eta aisialdirako denbora hartuz. Horregatik, «teknika eta gorputz-jarrera lantzeko ariketak egiteaz gain, jolasak burutzen ditugu, ez baita gure xedea gazteenak aspertzea», komentatu dio HITZARI Lazkanok.

Urtean zehar pilotarik ez

Harrera oneko kirola da pilota, tradizio handikoa eta gazte asko bil ditzakeena. Hala eta guztiz ere, tolosar pilotari gazteek urte osoan zehar ikastaro honekin jarraitzeko aukerarik ez dute, eta beste kirolerara jotzeko berezko joera indartsua bada, askoz indartsuagoa da beste aukerarik ez denean. Gurasoek eskaerak egin dituzte, beren seme-alabek pilotan aritzeko aukera izan dezaten.



EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE
ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko leiapandegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Burtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko bandak

San Francisco 39, behea
TOLOSA
Tel. 943 654361

GUREKIN,
ZUZENEAN LANERA

www.centrosbeta.com

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!